



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailak 27**

**Vitoria-Gasteiz, 27 de septiembre de 2022**

## Lana eta Enplegua

### **GOBERNU KONTSEILUAK 5 MILIOIRA IGO DITU UKRAINAKO GERRAREN ONDORIOZ GIZARTE EKONOMIAN EKITEKO LAGUNTZAK**

Gobernu Kontseiluak Gizarte Ekonomian ekiteko 5.045.000 euroko laguntza-agindu bat onartu du gaur. Ukrainako gerrak eragindako afekzioen eta Errusiari ezarritako zigorreen ondorioz, hasieran aurreikusitako 3 milioiko partida bi milioi gehiago handitu da.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, laguntzak bost kapitulu desberdin finantzatzeko izango dira. Alde batetik, bultzatu eta indartu nahi da gizarte-ekonomiako enpresak eratzeko eta sendotzeko euskal sare publiko-pribatua, bai eta gizarte-ekonomiako enpresak eratu eta sustatzeko eta berriki eratu direnak sendotzeko ere.

Aurreko deialdiekiko alde nagusia Ukrainako gerrak eta Errusiari jarritako zigorrek eragin dute. Horregatik, deialdi honek ekintzailtzarako laguntzak aurreikusten ditu arrazoi horrek eragindako Gizarte Ekonomiako enpresentzat. Era berean, Gizarte Ekonomiaren forma duten energia-komunitateak sortzeko eta finkatzeko dirulaguntzak jasotzen dira.

2021eko deialdiak 2,78 milioi euroko aurrekontua izan zuen.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 14 MILIOI EUROTİK GORAKO APARTEKO LAGUNTZAK ONETSI DITU LEHEN SEKTOREARI LAGUNTZA EMATEKO UKRAINAKO INBASIOAK ERAGINDAKO KRISIAREN AURREAN

- Ekoizpen-kostuen etengabeko igoerak nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei bideragarritasuna tenkatzen du
- Erkidegoko gobernuaren arabera, funtsezkoa da sektoreak sufritutako inpaktua txikitzea eta babes-neurriak sortzea lehiakortasuna babesteko egungo krisian zehar

Eusko Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bitartez, aparteko laguntzak deitu ditu nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei laguntzeko eta ekoizpen-kostuen igoeraren ondorioz bizi dituzten zailtasunak arintzeko; igoera horiek Ukrainako inbasioaren ondorio dira. 14,1 milioi euroko laguntza horiek honako azpisektore hauen jarduerak mantentzen lagunduko dute: behi-azienda, ardiak, ahuntzak, haragi-hegaztiak, hegazti erruleak, txerriak, untxiak, zaldiak, patata, erremolatxa, bazka-artoa eta zenbait lekadun.

Ukrainako inbasioaren ondorioz nekazaritzako sektoreak dagoeneko bizi zuen egoera larriagotzen ari da (EBko kanpoko sargaien mende), batez ere ekoizpen-kostua areagotzen ari zelako. Garestitze horrek jatorria du animalientzako elikagaienezko lehengaiaren eta energiaren eta erregaien prezioaren areagotzean. Energiaren, ongarrien, zerealen eta olioaren prezioak areagotzea bereziki kaltegarria da abeltzaintzarako. Azpimarratu beharra dago azken 12 hilabeteetan ongarrien batez besteko prezioa 2,24 aldiz handitu dela, pentsuaren batez besteko prezioa % 20 igo dela, gasolioaren prezioa % 83 eta elektrizitatearena % 74.

Egoera horren aurrean, **Eusko Jaurlaritzak funtsezkotzat jotzen du euskal ekonomiak pairatutako inpaktua txikitzen saiatzea eta horren lehiakortasuna babestea egungo krisiaren aurrean**. Horregatik, joan den 2022ko apirilaren 12an, erabaki bat hartu zuen, eta horren bidez “Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei lotutako aurrekontuaren laguntza” zehaztu zen. Lehen sektoreari emandako 14 milioi euroko laguntzak konpromiso horri erantzuten dio.

#### **Izapideak eta epeak**

Laguntzen zenbatekoa oinarrizko laguntza batez osatuta egongo da, eta horri laguntza-osagarri bat gehitu ahal zaio. Oinarrizko laguntza kalkulatzeko honako kalkulua egin beharko da: dirulaguntza jaso dezakeen animalia- edo hektarea-kopurua (agindu arautzailean zehaztuko da) biderkatu beharko da ustiatiegiko animalia- edo hektarea-kopuruarekin.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izango da laguntzen kudeaketaz eta ebazpenaz arduratuko den organo eskuduna. Izapidetzea ofizioz egingo da, euskal erakundearen erregistroetan dauden datuetatik abiatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren bitarteko elektronikoen bidez soilik: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko du, gehienez ere araua indarrean sartzen den egunetik 15 egun balioduneko epean, onuradunak izan daitezkeen ustiategien titularren behin-behineko zerrenda. Horrez gain, kontatutako abelburu- eta hektarea-kopurua ere zehaztuko da, baita laguntza osagarria jaso ahal izateko emakumea, parekidea edo gaztea izateko baldintza ere.

Onuradunek, zerrendan agertzen badira, aurreko atalean aipatutako argitalpenetik aurrera 5 egun balioduneko epea izango dute honako hau egiteko: zerrendan egotea onestea edo ezestea, datuak aldatzeko eskatzea, edo, zerrendan ez agertzekotan, bertan agertzeko eskatzea egiaztagiriak igortzen badira.

Aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat, aurkeztutako alegazioen ebazpena gehienez ere hilabeteko epean emango da, eta, hortik aurrera, hiru hilabeteko epean, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen bidez, laguntzak eman eta/edo ukatuko diren jakinaraziko da eta ordaindu egingo dira.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **ABIAN DA HANDITU INNOVA PROGRAMA, ETA BOST MILIOI EUROKO ZUZKIDURA DU NEKAZARITZA-EKOIZPENEAN BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREKIN LOTUTAKO INBERTSIO HANDIAK FINANTZATZEKO**

- **Lehen sektoreari laguntzeko tresna da, berrikuntza teknologikoaren ekimen handiekin lotuta**
- **Milioi bat eurotik gorako inbertsioak finantzatuko dira goi teknologiko instalazioetan, ekipamenduetan eta azpiegiturretan, berrikuntza-proiektu global baten barruan**

Eusko Jaurlaritzaren Batzordeak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren agindua onetsi du: haren bidez, nekazaritza-ekoizpenean berrikuntza teknologikoarekin lotutako inbertsio handietarako laguntzen deialdiaren oinarriak arautzen dira 2022an (HANDITU INNOVA programa). Guztira 5 milioi euroko zuzkidura du, eta helburuak dira nekazaritza-ustategien lehiakortasuna eta efizientzia hobetzea, berrikuntza teknologikoa sustatzea sektoreko trakzio-elementu gisa, ingurumen-eragina murrizten laguntzea eta energia-efizientzia handitzea.

Garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialdeen ekonomiaren garapenaren adierazleak dira, baita funtsezko faktoreak ere produktibitatean, lehiakortasunean eta hazkunde jasangarrian. Uste horrekin, Eusko Jaurlaritzak enpresei laguntzeko zenbait plan estrategiko jarri ditu abian, negozioa sortzeko helburuarekin, laguntza-programen, finantza-tresnen eta beste jarduketan-ildo batzuen bidez, jarduera ekonomikoa eta ekoizpen- eta teknologia-aktibo berrietako inbertsioak sustatzeko.

Testuinguru horretan, nahiz eta gaur egun I+G+b-ri buruzko laguntza-programa bat dagoen elikaduraren eta zuraren balio-kateari zuzenduta eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak sustatuta, proiektu pilotuei buruzkoa, **ez zegoen lehen sektoreari laguntzeko tresnarik berrikuntza teknologikoaren ekimen handiekin lotuta, ekoizpen-kostu zuzenak murrizteko eta lan-produktibitatea hobetzeko, eta tokiko eta eskualdeko arloetan ekonomia sortzeko gaitasun handiarekin.**

Horregatik finkatu da HANDITU INNOVA programa, honako helburu hauekin:

- Nekazaritza-ustategien lehiakortasuna eta efizientzia hobetzea ekoizpen-ratioetan, eta berrikuntza teknologikoa sustatzea Euskadiko ekoizpen-sektorearen trakzio-elementu gisa.
- Ingurumen-eragina murriztea, energia-efizientzia handitzea, ura aurreztu eta araztea eta EAEko nekazaritza-ustategietako hondakin eta azpiproduktuak aprobetxatzea.

## **Laguntza-ildoak**

Aginduak laguntza-ildo bakarra finkatu du, nekazaritza-ekoizpeneko berrikuntza teknologikoekin lotutako inbertsio handietara bideratuta.

**Inbertsio horiek milioi bat eurokoak edo handiagoak izan beharko dira, eta goi teknologiako elementu, instalazio, ekipamendu eta azpiegiturekin lotuta egon behar dira, berrikuntza teknologikoko proiektu global baten barruan.**

Oro har, dirulaguntzaren xede izango dira makineria berria, instalazio-elementuak eta ekipamenduak erostea edo erosteko aukerarekin alokatzea, produktuaren merkatu-baliora arte, teknologia eta berrikuntza handikoak. Halaber, ondasun higiezinaren erosketak edo eraikuntza, programa informatikoak, eta abar finantzatu ahalko dira.

## **Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira, helbide hauen bidez:

- <https://www.euskadi.eus/servicios/1220401> -Programa Handitu Innova
- <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1220401> - Handitu Innova Programa

Inbertsio-eskaerak ebaluatu eta baloratzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko lau pertsonak osatuko dute.

## Hezkuntza

### **25 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIBATUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022-2023 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 25.095.000 euro bideratzen ditu dirulaguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentroak mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea ere bada deialdi honen xedea.

Eskola hauek, Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, familia-bizitza eta lanbidea bateratzeko funtsezko zerbitzua eskaintzen diete euskal familiei.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 272 zentro daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenak. Joan den 2021-2022 ikasturtean, 11.119 haur zeuden eskola horietan matrikulaturik.

## Hezkuntza

### **13,6 MILIOI EURO UDAL MUSIKA IKASTEGIEN FINANTZIAZIORAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Euskadiko udal musika ikastegiak diruz laguntzea helburu duen agindu bat onartu du., Bi deialdi horiek jasotzen duten diru-kopurua 13.675.803 eurokoa da, orotara.

Laguntza hauen onuradun izango diren musika ikastegi horien artean daude, batetik, udal-titulartasuneko musika eskolak –irakaskuntza ez arautuak ematen dituztenak–, eta bestetik, udal-titulartasuneko musika kontserbatorioak, irakaskuntza arautuak ematen dituztenak (oinarrizkoak zein profesionalak). Gaur egun, ezaugarri horiek dituzten 45 musika-zentro daude Euskadin (udal-titulartasunekoak): 40 musika eskola; kontserbatorio bat; eta musika-eskola zein kontserbatorioa dituzten lau zentro.

Deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak 2021-2022 ikasturteari dagozkion kostuak ordaintzeko erabiliko dira. Diruz lagundu ahal izango dira ikastetxe horietako langileen kostuak (irakasleak eta ez irakasleak), ekipamenduaren eta funtzionamenduaren gastuak, betiere musika-irakaskuntzarekin lotura zuzena badute.

Musika eskola zein kontserbatorioek musika-prestakuntza praktikoa eskaintzen dute, baita musika-tresna tradizionaleri dagokiena ere. Bokazioa eta gaitasuna erakusten dituzten ikasleak ikasketa profesionaletan edo goi-mailakoetan jarraitu ahal izateko prestatzen dituzte, eurek hala nahi izanez gero. Egiten duten lan handiaren erakusle, eskola eta kontserbatorio hauek dituzten datuak dira: Egun, 15.000 ikasle baino gehiago ari dira Euskadin musika-prestakuntza jasotzen –arautua zein ez arautua-, gorago aipaturiko 45 ikastetxe horietan.

Gasteizko Jesus Guridi, Donostiako Francisco Escudero eta Bilboko Juan Crisostomo Arriaga musika kontserbatorioak ezin izango dira deialdi hauen onuradun izan, ikastegi hauek Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena baitute.



## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 7 MILIOI EURO BIDERATU DITU UDALENTZAKO LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBEKUNTZAK EGITEKO “UDALAGUNTZA 2022” DEIALDIAREN BIDEZ

- **Udalaguntza deialdiaren bidez 266 obra finantzatu ziren iaz, udal titulartasuneko eraikinetan kokaturik dauden 182 ikastetxetan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilera onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Udalaguntza 2022 izenez ezagutzen den dirulaguntza deialdia. Deialdi honen bidez, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko dirulaguntzak ematen ditu Hezkuntza Sailak. Deialdi honek 7 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza 2022 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeak kokaturik dauden eraikinen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Kasurik gehienetan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak izan ohi dira. Agindu honen bidez finantzatu daitezkeen obrak 2022ko urtarrilaren 1 eta 2023ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dira, eta 2023ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon.

Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez emango duen dirulaguntza balorazio-batzordeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Gainerako %40 proiektua aurkeztu duen udalaren gain izango da. Eskaera bakoitzeko gehienezko kopurua, dena den, 360.000 eurokoa izango da. Hortaz, balorazio-batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei dirulaguntza ematen bazaie, muga hori kontuan hartuta egingo da.

#### **Irisgarritasuna eta eguneratze lanak**

Ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan deialdi honen bidez diruz laguntzen direnak, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu-konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen-zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira. Dena den, ez dira deialdi honen bidez finantzatuko lehen ezarpeneko lanak, ezta kontserbazioko eta mantentze obrak ere.

#### **Udalekin koordinazioan**

Udalaguntza deialdiaren sorrera, ikastetxeen instalazioetan hobekuntza eta eguneratze lanak burutzeko Hezkuntza Sailaren eta tokiko erakundeen arteko koordinazioan aurkitzen da. Elkarlan horri esker, gainera, baliabide publikoen

optimizazioa eta administrazio bakoitzak egiten dituen ahalegin eta jarduketan eraginkortasun handiagoa ere lortzen dira.

luzko Udalaguntza deialdiaren bidez (Udalaguntza 2021) 266 obra finantzatu zituen Hezkuntza Sailak, Euskadiko 91 udalerritan kokaturiko Haur eta Lehen Hezkuntzako 182 ikastetxe publikotan.

2022 urte honetan, Patio Inklusiboak sortzeko Hezkuntza Sailaren deialdiarekin osatu da Udalaguntza (uztailaren 5ean onartu zen Gobernu Kontseiluan). Beste 7 milioi euroko aurrekontuarekin, deialdi berri hau ere udalei zuzendua da, euren titulartasuneko eskoletan jolastoki inklusiboak sortzeko egiten dituzten lanak finantzatzeko. Karpekin bezala, Hezkuntza Sailak kostuaren % 90 finantzatuko du. Horrelako jarduerak finantzatzeko 46 eskaera egin dituzte EAEko 33 udalerrik.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **GOBERNU KONTSEILUAK BILBOKO METROAREN 5. LINEA ERAIKITZEKO HITZARMENA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuaren proposamenez, Bilboko Metroko L5 linea (Etxebarriren eta Busturialdeko eta Durangaldeko trenbide-sarearen konexioaren artean) eraiki eta finantzatzeko eta sistema metropolitarran integratzeko Eusko Jaurlaritzaren –Ogasuna eta Garraioak–, Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakunde publikoaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmena sinatzea baimendu du gaur.

Hitzarmenak ezartzen duenez, Euskal Trenbide Sareak idatziko ditu azterketa eta proiektu teknikoak, eta, haien artean, hiri inguruko sarea 6,3 kilometrotan (Galdakaoraino) zabaltzearen bideragarritasun ekonomikoari eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzkoak. Garraio Sailaren mendeko erakunde publiko horrek, halaber, bost geltoki (Sarratu, Aperribai, Bengoetxe, Galdakao eta Usansoloko Ospitalea) izango dituen linea berria eraikiko du, eta obra-zuzendaritzaz eta ikuskapenez arduratuko da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegituraren % 50 finantzatuko dute, eta, horretarako, 360 milioi euroko inbertsioa egingo dute 2023tik 2029ra bitarte. Zerbitzua ustiatzeko material mugikorra Euskotrenen kontura izango da, eta hitzarmenetik kanpo geratu da.

Lanen jarraipena egiteko, batzorde instituzional bat eta batzorde tekniko bat sortzea ezarri da. Hitzarmena 2029ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta orain Legebiltzarrari helaraziko zaio, Jaurlaritzaren Legean jasotakoari jarraikiz.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 575.000 EUROKO DEIALDIA ONARTU DU LIBURUTEGI PUBLIKOETAN LIBURUAK EROSTEKO**

- **Deialdia Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak hornitzeko edo berritzeko dirulaguntzen deialdia. Guztira, 575.460 euro izango dira liburutegi publikoetan paperezko liburuak eskuratzeko, liburuetarako sarrera libre eta doakoa bultzatzeko.

Interesa duten liburutegiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren katalogo informatikoan eta Espainiako Liburutegien Direktorioan integratuta egotea, liburutegi publikoen tipologiaren barruan.
- Paperezko liburuetan erosketa bat egitea, gutxienez emandako kopuruaren berdina.
- Gutxienez, erositako liburuen % 50 gaztelaniaz izango dira. Gainerakoak euskaraz izan daitezke. Gainera, % 10 Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren atzerriko hizkuntza ofizialetako liburuak erosteko erabili ahal izango da.
- Nahitaezkoa izango da erosketetan irakurketa errazeko edota letra handiko liburuak sartzea.
- Erositako liburuak bildumaren katalogo bibliografikoan sartu beharko dira 2023ko abenduaren 31 baino lehen, eta gutxienez 5 urtez egon beharko dute bertan.
- Laguntza hauen xede diren materialen hornitzaileak, ahal dela, udal-eremuko liburudendak izan beharko dira.

Baldintzak betetzen dituzten liburutegiek gutxienez 1.500 euroko dirulaguntza jasoko dute. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

### **Next Generation EU**

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsak. Aparteko aukera ematen dute errekupeazio-plan espezifikoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituratua, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 48.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIO OIONGO UDALARI LABRAZAKO HARRESIA SENDOTZEKO**

Gobernu Kontseiluak 48.389 euroko dirulaguntza onartu du gaur, Arabako Oiongo Labrazako harresiaren iparraldeko horma-atala sendotzeko.

Labrazako hirigune historikoa, Euskadiko Erdi Aroko hiribildu murriztena, Kultura Ondasun izendatu zuten 2008an, Monumentu Maltza izendapenez. Gaur onartutako dirulaguntzaren bidez, harresia sendotuko da, egitura- eta segurtasun-beharrak direla eta, 2021eko azaroan euri-jasak izan ondoren, harresiaren zati bat behera jausi baitzen. Labrazako ipar-ekialdeko harresiaren parte den San Migel elizaren ondoan dagoen zatia da konponduko dena. Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan egingo diran interbentzioak dira.

### **GOBERNU KONTSEILUAK LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTU DU ZINEMATOGRAFIAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKO ARTEEN INSTITUTUAREKIN (ICAA), EUSKARAZKO EKOIZPENAK SUSTATZEKO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren bitartez, hitzarmena sinatu du Kultura eta Kirol Ministerioaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuarekin (ICAA), euskarazko zinema- eta ikus-entzunezko industriaren ekoizpena, banaketa eta hedapena sustatzeko. Horrela, ICAAk 760.395 euro transferituko dizkio Eusko Jaurlaritzari, 2021ean euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena, banaketa, erakusketa eta hedapena sustatzeko Euskadin egin zen inbertsioari dagozkionak.

Horrela, transferitutako funtsak bat egingo du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak joan den martxoaren 24an onartutako ikus-entzunezko produkzioarako deialdiarekin, 2,4 milioi euroko zuzkidurarekin. Horrela, ICAAk transferitutako funtsaren bidez, 3.190.395 eurokoa izango da zuzkidura, eta horietatik 760.395 euro euskarazko ekoizpena bideratuko dira.

Eusko Jaurlaritzak 2019an hasi zen funts hori berreskuratzeko negoziatzen Kultura eta Kirol Ministerioarekin, eta lan-mahai bat sortu zen gainerako autonomia-erkidegoekin, baldintzak negoziatzeko. Zupiria sailburuak eta Iceta ministroak 2021eko irailaren 20an Donostian, Etxepare Euskal Institutuaren egoitzan, egindako bileran ere aztertu zen gaia.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ustez, funts horiek berreskuratuz euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena indartuko da.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

**GOBERNU KONTSEILUAK 2022KO EUSKADI DENDA BONUA TRUKATZEKO BIGARREN ALDIA ONARTU DU. HASIERAKO AURREKONTUA BAINO LAU MILIOI EURO GEHIAGO IZANGO DA**

- **Bonuak urriaren 17tik aurrera trukatu ahal izango dira kanpainari atxikitako euskal saltokietan**

Gaur Gobernu Kontseiluak Euskadi Bono Dendaren 2022ko edizioaren bigarren aldia onartu du. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak beharrezkotzat jo du programaren zuzkiduraren aurrekontua handitzea, hasieran aurreikusitako 5.000.000 eurotik 9.000.000 eurora, sustapenaren lehen aldiko emaitza onak eta euskal txikizkako merkataritzaren salmenten suspertzean lortutako bultzada kontuan hartuta. Programa hau Eusko Jaurlaritzak Ukrainaren inbasioak ekonomian eragiten dituen ondorioen aurrean hartutako neurri osagarrien barruan kokatzen da.

Aurrekontuaren igoerari eta truke-aldi bien artean igarotako denborari esker, kanpainaren aurreko baldintzak aldatu ahal izan dira, eta horrela, pertsona bakoitzak gehienez ere bost deskontu-bonu batu ahal izango ditu, berrogeita hamar euroko balioarekin truke-aldi bakoitzeko. Hau da, pertsona batek lehen aldian esleitutako bonu guztiak kontsumitu izan balitu ere, kontsumitzailearen ondorioetarako, tarte berri hau kanpaina berri bat balitz bezala ulertzen da.

Bestalde, eta euskal merkataritza-sektoreak berak eskatuta, bigarren aldiaren hasiera datorren urriaren 17ra atzeratuko da eta 2022ko abenduaren 4an amaituko da. Horrela, kanpainak eraginkortasun handiagoz beteko du salmentak Gabonetan baino lehen suspertzeko helburua.

Bonu honen helburu nagusia tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzea da, prezioen igoeraren ondorioz kontsumoa uzkuritu egin baita, batez ere noizbehinkako ondasunetan. Mota askotako produktuak dituzten autonomoek, mikroenpresek eta merkataritza-enpresa txikiek kudeatzen dituzten establezimenduek erabili ahal izango dute: ehungintza, oinetakoak, drogeria, burdindegia, etxeko ekipamendua eta dekorazioa, liburuak, paper-denda eta bestelakoak. Gainera, hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituztenak gehitu dira, hala nola ile-apaindegia eta edertasun-institutuak, garbitegiak, tindategiak, argazki-zerbitzuak eta markogintza-zerbitzuak.

Euskadin atxikitako establezimenduei buruzko informazioa [www.euskadibonodenda.eus](http://www.euskadibonodenda.eus) webgunean kontsulta daiteke.

## Trabajo y Empleo

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO ELEVA A 5 MILLONES LAS AYUDAS PARA EMPRENDER EN ECONOMÍA SOCIAL COMO CONSECUENCIA DE LA GUERRA DE UCRANIA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una orden de ayudas dotada con 5.045.000 euros para emprender en Economía Social. Como consecuencia de las afecciones derivadas de la guerra de Ucrania y las sanciones a Rusia, la partida inicialmente prevista de 3 millones se ha incrementado en dos millones más.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, las ayudas irán dirigidas a financiar cinco capítulos diferenciados. Por un lado, se pretende impulsar y fortalecer el tejido público-privado vasco de apoyo a la constitución de empresas de Economía Social y a su posterior consolidación, así como la constitución y promoción de empresas de Economía Social, y la consolidación de las que hayan sido recientemente constituidas.

La principal diferencia con respecto a convocatorias anteriores está motivada por la guerra de Ucrania y las sanciones a Rusia. Por este motivo, esta convocatoria contempla ayudas al emprendimiento en las empresas de Economía Social que se hayan visto afectadas por esta razón. Asimismo, se incluyen subvenciones para la creación y consolidación de comunidades energéticas con forma de Economía Social.

La convocatoria de 2021 contó con un presupuesto de 2,78 millones de euros.

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### **EL GOBIERNO VASCO APRUEBA AYUDAS EXTRAORDINARIAS POR MÁS DE 14 MILLONES PARA APOYAR AL SECTOR PRIMARIO FRENTE A LA CRISIS PROVOCADA POR LA INVASIÓN DE UCRANIA**

- **El incremento sostenido de los costes de producción tensiona la viabilidad de explotaciones agrarias y ganaderas**
- **El ejecutivo autónomo considera fundamental minimizar el impacto sufrido por el sector y crear medidas de apoyo para salvaguardar su competitividad ante la crisis actual**

El Gobierno Vasco ha convocado – mediante orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente- ayudas extraordinarias para apoyar a las explotaciones agroganaderas y paliar las dificultades que vienen experimentando a consecuencia del incremento de sus costes de producción derivado de la invasión rusa a Ucrania. Dotadas con 14,1 millones de euros, estas ayudas contribuirán al mantenimiento de la actividad de las empresas de los subsectores de vacuno, ovino, caprino, aves de carne y de puesta, porcino, conejos, equino, patata, remolacha, maíz forrajero y ciertas leguminosas.

La invasión de Ucrania está agravando la situación que ya atravesaban buena parte de los sectores agrarios (muy dependientes de insumos externos a la UE), caracterizada por un incremento sostenido de los costes de producción, derivado del aumento de los precios de las materias primas para alimentación animal y de los precios de la energía y de los combustibles. El impacto combinado de estos aumentos de los costes de la energía, los fertilizantes, los cereales y los aceites es especialmente grave para la ganadería. Cabe destacar que en los últimos 12 meses los precios medios de los fertilizantes se han multiplicado por 2,24, el precio medio de los piensos ha incrementado un 20%, el precio del gasoil en un 83% y el precio de la electricidad se ha incrementado un 74%.

